



INFOUMA

## Euskararen erabilerak gora Nafarroan, 1991tik estreinakoz

Euskalerrria Irratia

@fm914

Joera berria azaldu du Inkesta Soziolinguistikoa: herritarren %6,6 aritzen dira euskaraz gaztelaniaz adina edo gehiago: %51 eremu euskaldunean; %3, eremu mistoan. Gazteak dira gehien euskaldundu direnak: egun, 16-24 urte arteko lau gaztetatik bat euskalduna da Nafarroan, hau da, %26. 1991an, %10 besterik ez ziren.

Inkesta Soziolinguistikoa bost urtean behin egiten da Euskal Herri osoan. Nafarroako datuen berri eman, eta datozen asteetan aurkeztuko dituzte parlamentuan. Nafarroan, maiatzean egin zuen landa lana Ikertalde enpresak, hain zuzen ere, euskararen inguruko bi polemika piztuta zeudenean: Lan Eskaintza Publikoaren eta euskarazko haur eskolen ingurukoak. Garrantzitsua da datua, biek ala biek eragina izan baitzuten emaitzan.

Ezagutzari dagokionez, herritarren %23 dira orain euskaldunak, hau da, orain dela 25 urte baino bederatzi puntu altuagoa da zifra: %14koa zen 1991n. Elebidun hartzaileek ere gora egin dute -%10 dira orain, lehen %5-. Gazteak dira aldaketaren giltzarria.

Iruñean, herritarren %10ek dakite euskaraz; gazteen artean, berriz ere, as-

koz hobe da datua: %25era egin du gora ehunekoak. Eremu mistoa osotasunean hartuta ere, antzekoa da datua: %11koa da euskararen ezagutza; gazteen artean, %27koa.

Datu baikorrenak eremu euskaldunean daude, herritarren %61 euskalduna izaki, eta gazteen %90. Eremu ez mistoan dago euskara larrien, %7 dakite euskaraz, gazteen artean, %12.

### Ettxeko hizkuntza ez izan arren...

Euskara etxean jasotzen zuten nafar euskaldunen %77k, 1991n; orain, %48k. Beherakada positiboa da, baina, euskara ama hizkuntza ez duten hiztunek eta euskaldun berriek euskarara jotutela adierazten duelako, etxeko hizkuntza ez dutenak ere euskararen alde lerratu direla.

### Zalantza aurkakotasun bihurtuta

Handitu egin da euskararekiko aurkakotasuna: 2011ko datuekin konparatuta, lau puntu gutxiago daude euskararen alde. Eremu mistoan, %43tik %36ra jaitsi da babes, zalantzati daudenak igota: %27 izatetik, %31ra pasa dira. Eremu ez mistoan, aldiz, dudak daudenak dira jaitsi direnak, kontrakoak handitu bitartean: %59 daude kontra -duela hogeita bost urte, %46 ziren-.

## EKONOMIAREN TALAIAN

### Kapitalismoa ardi larruz jantzia



Juan Mari Arregi

Munduko elitean dauden enpresa, gizarte eragile, politikari eta intelektualen artetik 2.500 lagun bildu ziren Davosen eta pertsonako 20.000 euro gastatu zituzten lau egunetan, munduko egoera aztertu eta kapitalismoak hobeto funtzionatzeko modua aurkitu nahian. Egokitu eta berrasmatu, eraberritu. Horixe da munduko kapitalismoaren guruan mezua. Euren sistemak sortzen duen desorekarekin eta industria iraultza berriarekin kezkatuta, egoerak muturrera egin eta jasanezin bihurtuko den beldur dira, sufritzen ari den masa horrek planto egin eta iraultzari ekitearen beldur. Industria iraultza berriak ekarri duenaren adibide bat: makina eta robotek AEBetan taxiak, kamioiak eta abar gidatzen dituzten hamabi milioi lagun langabezian utz ditzakete, automatikoki gidatuko baitira. Eta badaude enplegu suntsiketa masiboa ekar dezaketen beste hainbat adibide.

Badakite euren sistemak langabezia, migrazioa eta heriotza sortzen dituela, hainbeste, ezen orain "merkatuan oinarrituriko sistema inklusiboak" sortu nahi dituzten. Hau da, esplotaturiko klaseak beraien sisteman pixka bat integratu nahi dituzte, iraultza soziala egiteko tentazioak alde batera utz ditzaten. Jakin badakite etekinen pilaketa egunero handiagoa dela, eta arrakala soziala ere handitzen ari dela; horregatik diote euren aberastasuna "hobeto" banatu behar dela -langileen soldatak makillatuz, besteak beste-, baina pasa gabe... Eta euren gestore politikoei dei egin diete "iparrorratz eta radarrez" agindu dezaten, jendearen nahigabea ahalik eta azkarren antzeman eta protestak ez dezan esku artetik ihes egin.